




■ Eguneko kronika ■

Eskolak hustu, azoka bete

Ateak ireki orduko, ikasle eta irakasleek azoka bete zuten • Sarrera hitzaldia eta Jimeno Jurioren omenaldia egingo dira gaur



MONIKA DEL VALLE

Ikasleak izan ziren atzo goizean Durangoko Azokako jaun eta jabe.

Montse Arregi / Durango

GOIZEKO 10:30etan ireki zuten atzo 34. Durangoko Azokako karpa. «Itzela izan da, urte mordoxka daramatzat antolaketa lanetan eta sekula ez dut halakorik ikusi. Burrumbada batean ehunka ikasle sartu dira, eta bat-batean pasabide guztiak bete dituzte. Telebistan ikusten diren Londresko beherape-nak etorri zaizkit burura», zioskun Itziar Irazabalek ordu erdi beranduago, oraindik aho zabalik.

Sarrera nagusian paratu

duten arkupe modukoaren aurrean hustu zen autobus ilara luzea, goiz osoan. Arratia, Lea-Artibai, Durangaldea edota Bilbo aldeko eskola, ikastola eta institutuetako ikasleak ikusi genituen, karpabarruko Goienkale, Kalebarri, Artekale, Bekokale eta Barrenkaletik gora eta behe-ra. Euskaltegi-tako ikasle eta irakasleak ere ez zebiltzan urruti.

Gaztetxoan artean baziren irakasle ez ziren helduak ere. «Lehen eguna lasaiagoa izango zelakoan etorri gara, baina ez dakit asmatu

dugun!», esan zigun lagun batek.

Orduak aurre-ra egin ahala, autobusetara abiatzeko deialdiak ugaritu egin ziren azokako megafo-niatik, eta apur bat lasaitu zen giroa.

Goizeko izotza ikusita, jendea ondo jantzita etorri zen azokara, baina karpa barruan ez zen hotzik. Aurten ere aire bero-gailua jarri dute Gerediaga

Sarrera hitzaldia

■ ■ ■ Jimeno
Aranguren kultur
politiken
eraginaz
mintzatuko da
eguerdion

Elkarteko antolazaileek, eta aparailuak eta jendetzak giroa erabat epeltzea lortu zuten. Eguerdirako bero egi-ten zuen liburu, disko eta jende artean, eguzkiak ere bete-betean jotzen baitzuen.

Saltoki batzuk itxita

Ikasle eta irakasleen eguna goizetik, eta profesionalena arratsaldetik, azoka atzo abiarazi zuten. Hala ere, izan zen stand-en bat edo beste itxita. Askok izan ziren egunean euren saltokiak liburuz, diskoz eta bestelako materia-lez betetzen ibili zirenak ere.

Dena den, gaur eguerdian egingo da sarrera hitzaldia, eta baita Durangoko Argizaio-la ikurraren ematea. Hizlari Roldan Jimeno Aranguren izango da, eta Nafarroatik Euskal Herrira: Kultur politi-

ken eragina mintzaldia eskainiko du. Ondoren, bere aita Jose Maria Jimeno Jurio historialaria omen-duko du azokak, eta Durangoko Argizaio-la eman-go zaio oroigarri gisa.

Larunbata izanik, urtero legez, bisitari andana espero dute antolatzaileek goizeko lehen orduetatik hasita.

berta bertatik

Gorka Angulo •

«Diskoak erosten ditut batez ere»

► «Txango modukoa izan da eskolakoo-n-tzat azokara etortzea. Irakasleek, gainera, lan bat agindu digute bertan egiteko. Txikitandik ezagutzen dut azoka, eta batez ere diskoak erosten ditut, liburuak ez hainbeste. Akaso mendikoren bat edo».



Kristina Garcia •

«Asko gustatzen zait irakurtzea»

► «Eskola guztia etorri gara azokara. Asko gustatu zait ikusi dudana, gehien-gehien gure adinerako liburuak. Asko gustatzen zait irakurtzea, batez ere abenturazko liburuak. Askotan etortzen naiz azokara».



Libe Medina •

«Gabonetako opari bat erosi dut»

► «Trenez etorri gara Ermutik. Oso atsegina da azokan ibiltzea, gauzak ikusten. Gehien gustatu zaidana diskoen atala da. Alaitz eta Maider, Oskorri eta beste asko ditut gustuko. Aitarentzako CD bat erosi dut, Gabonetako oparia. Niretzat ez dut ezer erosi».



durangonobedadeak

literatura saila



Xabier Mendiguren



Jon Arretxe




Hasier Etxeberria



Joxe Azurmendi



Portuñe kalea, 88 bis
20018 Donostia
Tel. 943 31 02 67
Fax: 943 31 02 16



MANTEROLA

Liburudenda

Aintzinako liburuak

Euskal liburuak

Liburutegiak erosten ditugu

Manterola, 8 - Tel. eta Faxa: 943 46 27 80 - 20007 DONOSTIA



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Euskal Liburu eta Disko Azok@n
testu eta doinuak guztion ahotan

Zatoz!